

# ...eta **kitto!**

730 zkia. 2010-VII-16

ASTEKARIA

TOKIKOM

# Turismo eskaintza zure oinetara



## EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*



RPS 04/02



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

**Tratamendu aurreratuenak**

*Uda honetan  
zure irribarrea modan*


**DESKONTUA**

**%10**


Protesiak  
Ortodontzia  
Inplantologia  
Periodontzia

**DIAGNOSTIKOA  
KONPROMISO GABE**

**BENETAKO  
PAZIENTEAREN  
IRUDIA**



**ANTONIO MURILLO**  
Doktorea:  
Masterra Periodontzian  
eta Inplantologian



**AINHOA ZULUETA**  
Doktorea:  
Odontologoa

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkarteak  
**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekararen E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi,

E. Belar eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARAGAZKIA:**

Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGLIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**GIRAPO.-** Hegaztien barruak, arandoia. Gaztelarazko 'm olleja'. "Girapua eta hegaztixan barruak ipiñizuz piparrekin".

**GIRGILLUAK.-** Gerri bueltako edo okozpeko gizenak. Gaztelarazko 'm ichelines'. "Girgillo hutsa zan haren lepua".

**GIRO EZ IZAN.-** Egoera txarra, deserosoa dagoela adierazteko. Normalean ezezka erabiltzen da. "Harrezkero ez zan giro izango harekingo hartu-emonetan".

## ESKUTITZAK

### – OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarri onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahal jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

### ERREDAKZIOAREN OHARRA

Esku artean duzun hau da udako opor aurretiko azken alea. **Hurrengo**a, oporretatik bueltan eta Arrateko jaien aurretik, **irailaren 3an** izango duzue zuen buzoietan; hori bai, aipatutako jaiok aste hori erdi-erdian hartzen dutela-eta, **irailaren 10ean ez da alerik izango**. Hurrengotik, irailaren 17tik, aurrera astekaria barixakuero eta normaltasunez jasoko duzue berriro. Bitartean, **ondo pasa oporrak! Bueltan ikusi arte!!**

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Umeak inizatiba propioa garatzeko ezinbesteko baldintza da bere buruarekin ziur sentitzea. Haurrarentzat, porrota ez da saio batean huts egitea; porrota onarpen eza da. Helduon erreakzioetan neurtzen ditu bere ekintzak, eta ezartzen zaizkion erronkei ezin diela aurre egin sentitzen badu, balio ezaren sentimendua nagusituko da berarengan"

(Ezoz Arizaga, psikomotrizista eta psikoterapeuta)

"36 graduren edo bakoitzak duen tenperaturaren arabera irradiazioa emiitzen dugu, gorputz irradiazioak garelako. Guk geuk sortzen dugu argia: gure organismoaren bibrazio molekularrek sortutako erradiazio azpigorria da. Eta hemendik urte batzuetara lortu ahal izango dugu alkondara edo kapa bat gainean jantzi eta ikustezen bihurtzea"


(Paras Prasad, fotonikan eta biofotonikan ikertzailea)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

# a u t u a n

## UDALBILTZA

Bihar (uztailak 17) Bai Udalbiltza Bai Euskal Herriari manifestazioa abiatuko da Bilboko La Casillatik, 17.30etan eta joan nahi duenarentzat Egogainetik irtengo den autobusa antolatu dute. Joan nahi duenak aurretik izena eman beharko du Kultur, Deporren edo Montekan. Bestalde, aurreko asteko aldizkarian kaleratu genuen gutuna Ezker Abertzalearen izenean, txarto sinatu genuen. Sinatzailea Udalbiltzaren Babes Taldea zen.

## LAN ERREFORMA

Debegesak eta Mutuak lan erreforma berriaren inguruko informazioa ezagutzera emateko jardunaldia antolatu du uztailaren 20rako (martitzena), 10.30etatik 12.00etara. Bereziki enpresentzat pentsatutako jardunaldia izango da eta azalpenak José Miguel Fiallegas Zabaletak emango ditu. Interesa dutenek pymes@debegesa.com helbidean eman dezakete izena.

## 1955-EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA

Urriaren 23rako bazkaria antolatzen dihardute, 1955ean jaiotakoentzat. Arrate Hotelean egingo den bazkarira joan nahi duenak 80 euro sartu beharko ditu Kutzako 2101 0035 16 0127373025 kontu korrontean.

## Asola Igartzako etxebizitzak zozketatuta

**EGUAZTEN GOIZEAN, COLISEOAN ETA JENDAURREAN EGIN ZUTEN ASOLA IGARTZAN ERAIKITZEN DIHARDUTEN** babes ofizialeko etxebizitzak banatzeko zozketa. Behin-betiko onartuen zerrendan jasota geratu ziren 704 eibartarren artean 78 etxebizitza banatu ziren zozketan, bueltak ematen zituena loteria-ontzitik banan-banan irtetzen joan ziren zenbakiei jarraituta. Atzoz geroztik Udalaren webgunean zein Pegoran ikus daiteke zozketan etxebizitza bana lortu dutenen eta notarioak berretsi duen zerrenda. Promozio honetarako 1.503 eskaera jaso zituzten Imesa promozioari arduradunen bulegoan, baina horietatik 799 atzera bota zituzten zozketaren aurretik, eskaera egin ahal izateko eskatzen zituzten baldintza guztiak betetzen ez zituztelako. Atzera botatzeko arrazoi nagusiak 2008. urtean 9.000 eta 35.000 euro bitarteko diru-sarrerarik akreditatu ez izana eta 2005eko urtarrilaren 1aren aurretik Eibarren erroldatuta ez



78 etxebizitza zozketatu ziren Coliseoan egindako ekitaldian. / EKI BELAR

egotea izan dira. Zozketatu zituzten lehenengo etxeak elbarrituentzat egokitutakoak izan ziren (3 etxe 11 eskaerarentzat). Jarraian familia ugariarentzat gordetakoak zozketatu ziren (25 etxebizitza eta 5 eskaera, beraz automatikoki etxebizitza bana jasoko dute bostek). Eta, amaitzeko, kupo orokorrean 70 etxebizitzaren jabe izateko eskubidea eskuratu dutenen eta ordezkoen izenak atzera zituzten.



## X izpiak neurtzeko patroien diseinua

**TEKNIKER-IK4-K ESPAINIAN X IZPIAK NEURTZEKO PATROI BEZALA BALIOKO DUEN EKIPOA** diseinatu du Zientzia eta Berriztapen Ministeritzari atxikitutako Ciemat-entzat. Azken belaunaldiko aire-ionizazio kamera bat da ekipoa eta, horrela,

Estatu Batuak, Erresuma Batua, Alemania edo Frantziaren mailan kokatuko da Espainia, ez baita beste herrialdeen menpean egongo. Teknikerrek garatutako ekipoa 100.000 euroko kostua izan du eta Ciemat-ek Madrilen duen egoitzan dago jada.

## Wi-fi sarea zabalitzen

**EIBARKO UDALAK HARIRIK GABEKO WI-FI SAREA ZABALTZEKO ASMOA DAUKA** Untzaga (eta Txaltxa Zelaian) eta Urkizun. Proiektua gauzatzeke 50.000 euroko aurrekontua dauka Udalak eta proiektua esleitzeko lehiaketa jarriko du berehala. Proiektua gauzatzen denean bere eragina aztertuko da eta wi-fi sarea herri osora zabaltzea aztertuko da. Haririk gabeko sare libre eta doakoa kokatzen bada, edonork erabili ahal izango du.



**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak


**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 faxo: 943 202564





## Azpilikuetaren murala Estazioan

**URTE AMAIERAN HASIKO DIRA ESTAZIOA BERRIZTEKO BEHARRAK ETA,** aurreikusitako epeak betez gero, urte bitan amaituko dituzte. Tren geltokiak kanpotik duen itxurari eusteko asmoa duten arren, barrualdean aldaketa sakonak egongo direla aurreratu dute Udal ordezkariak aste honetan bertan egindako aurkezpenean. Berritasunen artean, Jose Antonio Azpilikueta artista eibartarrak sortutako murala azpimarratu nahi izan ditu. Artistak berak azaldutakoari jarraituz, muralak lau zati izango ditu: *“Zatietako batean Bilboruntz doan trenbidearen irudia egongo da margotuta eta beste batean, berriz, Donostiaruntz doan beste tren bat margotuko dut”*. Beste zati bietan, trenarekin eta estazioarekin zerikusia izan duten 96 lagunen aurpegiak margotuko ditu Azpilikuetak: besteak beste tren-erabiltzaileak, Lizarrako dultzaineroak, tren-gidariak, geltoki-zaintzaileak, pertsonaia anonimoak eta beste hainbat azalduko dira 2x2 metroko neurria izango duen horma irudian. Erretratuetarako neurria, berriz, 25x25 zentimetrokoa izango da eta agertu nahi duenak uda ostean izango du bere izena eman eta artistak muralean irudikatzeak aukera.



## Benetako fabrika txikia Armerian

**BADIRA URTE BATZUK ARMERIA ESKOLAK MIFAES PROIEKTUAN BEHARREAN DIHARDUELA,** ikastetxe barruan benetazko lantegi txikia osatu eta martxan ipintzeko asmoz. Helburua, Fabrikazio Mekanikoan diharduten ikasleek piezen diseinu eta fabrikazioan, zein kontrol prozesuetan lan munduan, eskolatik kanpo aurkituko duten ereduarekiko

gertuen jarduteko aukera eskaintzea da. Eskolak 250.000 euroko inbertsioa egin du datorren ikasturtera begira eta, horri esker, hainbat makina berri erosi dituzte, lehendik zituzten beste batzuei gehitzeko: iaz mekanizazioarako zentrua eta tornua erosi zituzten eta erosi berri duten makinari esker, 3 dimentsiotan neurtzeko moduan izango dira ikasleak.

## anzorik anzo



### Obra handi bariko uda

**Herriko kaleetan obrak egiteko sasoia izaten da abuztua normalean; aurten ere horrela izango da, baina maila baxuagoan.** Herriarrei kalte gehien sor ditzakeena San Agustin eta Egogain kaleen itxierak izango dira. Kale biak itxita daude duela hainbat astetik eta irailera arte horrela egongo direla aurreikusuten da.

San Agustin kalean espaloia handitu da trafikoaren zentzuaren ezkerreko aldean eta eskuineko aldean aparkalekuak egingo dira. Egogainen, berriz, obrak dauden tokian kokatuta dauden garaje bi daude eta horrek arazoak sortzen dizkie erabiltzaileei. Lan hauen bitartez gune hauek oinezkoentzat egokitu nahi dira.

Gipuzkoako Uren Partzuergoak, gainera, lanak egin behar ditu Untzaga eta Isasi aldean. Beraz, Isasi kalea trafikoarentzat itxita egon beharko da abuztuan hiru egunez.


### eibar kaleka

#### Ibarbia Zaharra

Gutxi izan arren, badira kale honen moduan pegorarik ez duten batzuk eta, ondorioz, bertan inor bizi ez denez, erroldatutako biztanlerik ere ez dutenak. Kale laburra da eta Errebaletik Bidebarrietara bitarteko eskailerak hartzen ditu, sasoi batean Rialto zinemaren eta gaur egun merkatu plazaren eraikina denaren alboan.

**Pegora kopurua: 0.**

**Erroldatutakoak: 0.**



asteko

3.000

datua

grabazio gairitu berri dute Ahotsak.com, Arrasateko Kontxi Etxebarria Xperi egindako elkarrizketarekin. Orain arte egindako 3.002 elkarrizketetan 157 herritako 2.475 lagunen lekukotasunak jaso dituzte eta dagoeneko 4.000ra ailegatzeko beharrean jarraitzen dute.

## 300.000 euroko donazioa Ospitalarentzat

**SAN ANDRES ZAHARREN EGOITZAK BIZI DUEN EGOERA EKONOMIKO LARRIA NOLABAIT LEUNTZEN LAGUNTZEKO**, aurreko barixakuan 300.000 euroko donazioa egin zion Kutxak, Eguzkiñe Larrañaga Eibarko Kutxako zuzendariaren eskutik. Udaletxeko areto nagusiak hartu zuen ekitaldian, Kutxako ordezkariarekin batera Javier Osa San Andres egoitzako zuzendariak eta Miguel de los Toyos alkateak hartu zuten parte. Larrañagaren berbetan, *“guretzat ohorea da San Andres egoitzan bizi direnei bizitza kalitate hobea izan dezaten laguntzea”*. Dirulaguntzak Kutxaren filosofiari jarraitzen diola ere argitu zuten ekitaldian: *“Guk jasotzen ditugun*

*etekinen zati bat gizartekintza arloko proiektuetara bideratzen dugu, kasu honetan nagusien ongizatea helburu, eta gure bezeroek hori eskertu egiten dute”*. Eibarkoa ez da larri dagoen nagusien egoitza bakarra: Gipuzkoan 16 dira Udalen menpe dauden egoitzak eta horiei guztiei irtenbideren bat emateko ahaleginetan dihardute elkarlanean Foru Aldundiak eta Udalek.

Legarreko Ospitalak birmoldaketa garrantzitsua jasan du orain dela gutxi, legeak agindutako baldintzetara moldatzeko, eta beharrek 4 milioi euroko kostua izan dute. 120 nagusi bizi dira San Andresen eta gehienak, %90 inguru, menpekotasun handia, ia osoa daukate.



## Udako aukeren azoka

**TORIBIO ETXEBERRIA KALEAN UDAKO AUKEREN AZOKA EGINGO DA UZTAILAREN 21, 22 ETA 23-AN**, Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatuta. Bertan, beharpenak dituzten produktuak eta deskontu askokoak egongo dira eskuragai. Laugarren urtea da horrelako ekimena egiten dena; eta iazko edizioetako esperientzia positiboa izan denez, bai dendarientzat, bai erosleentzat, beste behin egitea erabaki du Eibar Merkataritza Gune Irekiak.

Guztira 32 dendek ipiniko dute euren postua azokan eta aterpean egongo dira (Sanandresetako postuen antzera). Aipatutako hiru egunetan 10.00etatik 20.00etara egongo da zabalik azoka, eta zapata, arropa, dekorazioa, optika edo lorak aurki daitezke, besteak beste. Hauek dira azokan parte hartuko duten dendak: Askasibar, Farmalur, Lencería Calbetón, Arizona Jeans, Lide, Nona, Garmen, Tribeka, Pissa, Narrua, Gratzina, Guby Chicas, Tierra, Txukuna, Guby Chicos, Rosa Dominguez, Cedry, Ikusimakusi, Ttiki, Errebal Kirolak, Burbujas y más, Lola's, Bambi, Irritsa, Kopiña, Zero, Gloss, Doroti, No Comment, El Corte Inglés eta Valenciaga.



## Irudex-eko beharginak greba mugagabea

**ITZIARCO INDUSTRIALDEAN DAGOEN IRUDEX LANTEGIKO BEHARGINEK GREBA MUGAGABEA HASI DUTE**, beharginen ordezkariak helarazi diguten oharrean azaldukoari jarraituta. Idatzian diotenez, *“arazoa orain hilabete inguru hasi zen, kontratu guztiak desagerrarazteko asmoz enpresak hartzekodunlehiaketarako eskaera aurkeztearekin batera”*. Gauzak horrela, enpresa ixteko asmoa *“deslokalizazioaren adibide*

*garbia da”*. Beharginek salatzten dutenez, *“enpresak eskulana merketu nahi du, une honetan Irudex-ek egiten duen produkzio berberari eutsita. Enpresa honetan lehenago ere egin dituzte horrelakoak, orain 14 urte Caldereria Irudex enpresa itxi eta produktu berbera lantzeko enpresa berria, izen ezberdinarekin zabaldu zuen gerenteak jarraian”*. Beharginen emandako datuen arabera, 74 familia bizi dira lantegiko soldaten menpe.


Udako oporrak heltziaz dagoz (batzuri heldu jakue jada) eta, normala danez, herrixa erdi hutsik geldituko da. Mundu osuan zihar banatuko da eibartar jendia eta bakotxak plan ezbaridiñak egingo ditu. Hondartza, mendixa, hirixak... aukerak ez dira gitxi.

## Zein toki gomendauko zenuke oporrak pasatzeko?



**Ma FERNANDA TABARES**  
21 urte  
zerbitzarixa

Nik Kolonbiara juateko gomendixua luzatzen dot. Oso leku politak dagoz bertan. Adibidez, San Andres eta Santa Marta, kostako lekuak diranak eta klima tropikalekuak. Cali be oso leku polita da, eta Pereiran Uztaren Azokia egitten da abuztuan.



**JOSE LUIS FERRER**  
38 urte  
soroslia

Nik nahi dotena da ezer ez egitia eta erlaxatzia. Oporrak hori dira neretako, ezer ez egittekosoia. Berdin jata hemen geldittu edo hortik zihar juan, edozein tokittan tranuil egotia da nik nahi dotena. Urte osoko estresa kentzia da asmua.

**ANDONI ARRAZOLA**  
41 urte  
bihargiña

Nik mendira juateko gomendauko neuke jendia, Pirineuetara. Ez naiz bape hondartza zalia, horregaittik. Halanda be, ume txikixak dittut eta jaixo ziranetik ez naiz oporretan mendira juan. Hori bai, hazten diranian nere botua emongo dot mendira juateko.



**MAITE GAMAZO**  
44 urte  
irakaslia

Bakotxaren egoeriaren arabera gomendau biharko zan. Ea bakarrik doiazen, umiekin... Ni, adibidez, umiekin noia. Holan, toki lasai batera juateko asmua dakat, hondartza eta igerilekua dakana, Mediterraneo aldi.



**Helbidea**  
**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

**EIBAR**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Anali Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

**BERRIA:**  
Foto-depilazio Unitatea

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilberrista 20 - beheko eskua

**M FUNERARIA MUGICA**

**Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba**  
Tanatorio eta Errusketak labea  
Egiteberran (Signo poligonala)  
Partikular, mutua eta osasuneko erabaki zerbizuek  
Koroak - Eskelak - Urtumarako eskelak  
Eskel Hiri osoko ospitaleen hartzen zaitegu  
Nazio eta Nazioarteko tralajeak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeraria Mugica

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

*Uda sasoian bete-betian sartuta gagoz eta gutariko askok, maletak eta motxilak preparauta, herritik kanporako bidia hartuko dogu. Halanda be, beste askok etxetik gertu pasauko dabe udia eta, zelan ez, beste herri eta herrialde batzuetatik be gurera etorriko jakuz, gure paisajiak eta kultur-eskintzak erakarritta.*

**M**endixa, itsasua, mu-seuak... Euskal Herrira azalera txikixa izanda, dana esku-eskura daukagu eta hori askorendako bentajia da, batez be biajatzan edo toki barriak ezagutzen ibiltzeko egun gitxi dakenendako. Gaur egunian biajatzan ibiltzeko modu asko dagoz eta, alde zurririk dana lotuta eukitzen daben turistak ez eze, euren kabuz, opor-erakunde euren neurria diseñatzen dabenak be badagoz. Horrendako oso baliagarria izaten da turismo buleguetan eskintzen daben informaziño-zerbitzua eta, zelan ez, interneten toki-



# Turista...

## ...etxetik aldendu barik be

xan-tokiko turismo eskintzen barri emoten daben webguniak.

### Webgunietako pausuen atzetik

Beste herrialde batzuetan geurian baiño ohitura eta tradiziño haundixagua izan dabe horretarako, baiña badira urte batzuk Euskal Herrixan be internetek daukan garrantzixarekin konturau zirala eta, teknologixa barrixen eskutik ailegatu jakuzen baliabidiak erabilittita, geure



herri eta eskualdietan ikusi leikiazan tokixak, kulturiarekin lotutako jarduerak, museuak, ekskursiñuetarako planak eta bes-telako informaziño erabilgarria nahi dabenaren eskura ipiñi dabela hainbat webgunetan. Eta, norberak bere gustuen arabera plana egitteko modurik onena webgune hórretan nabigatu eta gehixen interesatzen jakona pillatzen juatia izanda be, geuk proposamen nagusixak batu eta zeuri laburbilduta eskindu nahi detsuegu, gure herrixak eta ingurukuak udan ez eze, urte osuan jai egunak betetzeko moduko hamaika plan egitteko aukeria emoten dabela ikusi deizuen. Tokixetako batzuk honez-kerok ezagunak egingo jatzue askori, beste batzuk ez horrenbeste, baiña seguruenik zeuen gustukua dan zezer topauko dozue. Izan be, eta sarritan esaten daben moduan, askotan toki ikusgarrixak ezagutzeko

etxe aldamenetik larregi mugit-zeke premiñarik ez daukagu.

### Debabarrenako kostaldia

Geure eskualdeko edozeiñ herrittan egonda be, ez dogu izango kilometro eta miñutu gitxira hondartzan bat topatzeko arazorik: Deba, Ondarbeltz, Mutriku, Saturraran... bero daguan bertan baiñua hartu edo, beste barik, eguzkixa hartu edo pasian ibilli leike, hondartza gehixenetan moduan, baiña nahi dabenak hortik aparte urkirolak praktikatzeko aukeria be badaka. Eta hondartzatik kanpora be, kostako herrixetan badago zer egin eta ikusi.

Berezittasun modura, ezin doguz aittatu barik laga Deba eta Mutrikuko itsasertzian daguan harri septarioa eta Zumaia-Deba-Mutriku tarteko flysch-aren ibilbidia. Harri septarioa gitxitan ikusi leikian bitxikeri geologikua da: sumendixetan sortutako harrixa da

Flysch-a eta gure kostaldia txalupan ezagutzeko urteerak antolatzen diitue. Airetik be Gipuzkoako paisajiak ikusteko aukera bikaiña eskintzen hasitta dagoz.





eta, itsasuaren fondoko lokatz-bolen sedimentaziñuari esker, marrazki ikusgarriak dakaz.

Flysch-aren ibilbidiak, barriz, denporan atzera bidaiatzeko aukera paregabia eskintzen dau: Mutriku, Deba eta Zumaia artian agertzen diran formaziñuak ezagutu nahi dabenak, oiñez 8 bat kilometroko ibilbidia eginda zein flysch-a ezagutzeko apropos antolatzen diran txalupa-urteeren batian parte hartuta izango dau horretarako aukera paregabia. Itsas-trabesiaren gaiñeko informaziño guztia Mutriku, Deba eta Zumaia turismo gunietan eskuratu leike eta, horrez gain, [www.flysch.com](http://www.flysch.com) webgunian flysch-aren inguruko azalpenak, bertako argazkixak, txanguetarako kontaktuak eta bestelakuak pillatu dittue.

#### Itsasotik mendialdera

Baiña askori kostaldia barrualdia baiño erakargarriagua begittanduta be, Debabarrenian urteko sasoi guztietan ezagutu eta gozatzeko moduko turismo natural, kultural eta ekologikua egitteko aukera paregabia dake bestelako gustuak dittuenak. Gaiñera, ibilbide ezagunak albo batera laga eta baillara txikixetan "galtzeko" modukuak ez jakuz falta inguruan: Olatz (Mutriku), Lastur (Deba), Kilimon (Mendaro) eta San Lorentzo (Elgoibar) adibide batzuk baiño ez dira. Karakate, Atxolin eta Hirukurutzeta mendixetan, barriz, Jose Miguel Barandiaran paleontologuak "Trikuharrixen ibilbidia" deittutakua jarraitu eta bertako aztarnategixetan daguzen trikuharri eta tumuluak eza-

gutzeko aukeria dago. Eta Neolitiko eta Brontze Arora bidaiatzeko Kalamuara juatia besterik ez dogu bihar: tontor inguruko Diruzulo eta Olaburuko dolmenak horren adibide bi dira.

#### Ofiziuak museuetarako aitzaki

Eibarren, Portaleko 5. pisuan Armagintzari eta Industriari eskindutako museua ez eze, Debabarreneko beste herri batzuetan be badagoz bertako historixari lotutako beste museo batzuk be: Mutrikukua, bestela ezin izan, itsasuari eskutik helduta doa, Elgoibarren makina-erremintari eskindutakua dago, Lasturren nekazaritzarekin lotutakuak batu dittue...

Eibarko museua uztaillak 25ian eta 31n eta abuztuak 15ian itxitta egongo da, baiña, bestela, martitzenetik barixakura 16.00etatik 20.00etara egongo da zabalik (uztaillian) eta abuztuan, barriz, 10.00etatik 13.30xetara. Nahi izanez gero bisita gidatuak antolatzen dittue, alde zurreretik abisautu. XVI. mendetik aurrera geure herri-xan armagintzan zein bestelako industriari landutakuak bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabia emoten dau museuak. Horrez gaiñ, eta eskualdetik urrundu barik, Lasturren Plazaolako Errotak ezagutzeko aukeria dago, Mutrikun Bentalekua eta Nautilus museuak bisitatu leikez eta Elgoibarren Makiña Erramintaren museua ez eze, fosil eta mineralen ingurukua be dago martxan.

#### Gipuzkoako museo guztiak

Eta eskualdetik kanpora be,

## Kontuak hartzekuak

- Debabarrenako turismo eskintza ezagutu nahi badozu: [www.debabarrenaturismo.com](http://www.debabarrenaturismo.com)
- Eskualdeko kostaldeko aukerak konsultatzeko: [www.zumaiaturismoa.net](http://www.zumaiaturismoa.net), [www.deba.net](http://www.deba.net) eta [www.mutrikukoudala.net](http://www.mutrikukoudala.net); Flyscharen inguruko guztiak [www.flysch.com](http://www.flysch.com) topauko dittuzu.
- Gipuzkoako turismo-eskintzak erakartzen bazaittu: [www.gipuzkoaturismo.net](http://www.gipuzkoaturismo.net)
- Euskadi maillako turismo eskintza osua: [www.turismoa.euskadi.net](http://www.turismoa.euskadi.net)
- Museuetan interesautu bazagoz: [www.gipuzkoakomuseoak.net](http://www.gipuzkoakomuseoak.net)
- Turismo aktiboko enpresen eskintzaren barri jasotzeko: [www.aktiba.info](http://www.aktiba.info)

*Webgune horretara jo ezkerreko, informaziño zabala jaso zeinkie (ibilbidiak, nun jan, nun lo egiñ, erreserbak...), beste webgune askotarako loturak topauko dittuzue eta, gaiñera, audiogidak, mapak, liburuxkak eta bestelako materixalak musutruk jaisteko aukeria eukiko dozue.*



Gure paraje berdiak erakarrita, animatzen dira turista asko Euskal Herrira etortzen.

Gipuzkoako hainbat herritan museo interesgarriak zabaltzen jua dira. Bakotxari buruzko informaziño erabilgarrixa zein bertako eskintza ezagutu nahi dabenandako, benetan gomendagarrixa da aurten bertan Diputaziñuak martxan ipiñi daben webgunia ([www.gipuzkoakomuseoak.net](http://www.gipuzkoakomuseoak.net)). Bertan probintzian daguzen museo guztien barri emoten dabe eta, gaiñera, norberaren gustuen arabera edo gaika bisitak antolatzeko baliabidiak eskintzen dittue. Gaiñera, agenda moduko batian erakusketak eta ekitaldixen inguruko proposamenak be badagoz.

#### Jairik jai geratu barik

Eta, agenda aittatuta, ezin doguz albo batera laga uda sasoiari, uztaillian hasi eta iraille-rarte ospatuko diran jaixak: Er-

muan hillaren 24tik aurrera Santixao jaixak ospatuko dittue (baita Goimendi auzuan be); Mutriku, Soraluze eta Mendaron Santa Ana jaixak.; abuztuko lehen asteburuan Kopraixak Itzianren; abuztuaren 7xan eta 8xan Eibarren Salbatore Deunaren jaixak; eta abuztuaren 14tik 20ra San Rokeak Deban; abuztuaren 15aren inguruan Andramariak ospatuko dira Azittain auzuan, Mallabian eta Sorraluzen; eta abuztua agurtu aurretik, 24an San Bartolome izango dabe goguan Elgoibarren; eta irailian, zelan ez, eibartarrok jaixarekin segiduko dogu Arraten eta geure atzetik be beste batzuk helduko detse lekukoari. Baiña horren barri emoten juateko geu be bueltan izango gara. Bixen bittartian, uda ona pasau!

Debabarrenako kostaldiak edazeiñ hondartzak dakan guztia geure esku ipintzen dau eta, gaiñera, kultur eta bestelako jardurekin batzeko moduko planak egin geinkez.



TEEN-  
AUEA

Foballeko Munduko Txapelketa amaitu berri da, baina foball taldeak hasi dira lanean jada. Eibar B-k astelehenean ekingo dio denboraldiari. Jokalarien buru Gaizka Garitano egongo da Iban Lopez eibartarra laguntzaile duela. Fisioterapeuta moduan beste eibartar bat, Xabi Moreno.

**XABI MORENO, fisioterapeuta:**

## “Aurrendenboraldian ez dago zertan gehiago lesionatu behar”

**- Astelehenean hasiko duzue denboraldi berria Eibar B-koek. Nola egiten diozue aurre?**

Gogo eta ilusio handiarekin ekiten diot denboraldiari. Pentsatzen dut esperientzia polita izango dela niretzat, bai maila pertsonalean, bai fisio moduan. Foball munduan lanean aritzea kirola maite duen pertsona bantentzat eta gainera Eibarko taldean... pentsa!

**- Zein izango da zure papera taldean? Zein funtzio izango dituzu?**

Fisioterapeuta naizen heinean. Taldeko jokalarien lesioak tratatzea eta aurrezaintzea izango da nire lana. Lesioak datozenean tratatzen dira, eta aurrezaintzea lesio horiek ez agertzeko egiten da. Asteazken zehar taldearekin entrenamenduetan egongo naiz eta asteburuetan jokalarietara bidaiatuko dut partiduetara talde teknikoarekin batera.

**- Aurrendenboraldiari ekingo diozue astelehenean. Lesio gehiago gertatzen dira sasoi horretan?**

Aurrendenboraldia izateagatik ez dago zertan lesio gehiago egon beharrik. Jokalariak oportunitateak datoz, eta denboraldiko lehen esfortzuak egingo dituztela jakinda, gaitortasuna eta tiroiak ikusten dira gehien bat aurrendenboraldian, baina hori normala da forma hartu arte.

**- Zeintzuk izaten dira foballarietara izaten dituzten lesio ohikoak?**

Foballarien artean ikusten di-

ren lesio gehienak zaintziratuak (orkatila aldean) eta fibra apurketak izaten dira. Belaunean ere lesio asko jasaten dituzte foballarietara, baina ez horrenbeste. Zaintziratuak bendajeekin (terapeutikoak edo funtzionalak) eta masajekin tratatzen dira. Beste lesioak jokalariaren eta bere minaren arabera tratatzen dira, pertsonalizatuak dira tratamenduak.

**- Iaz Eibar KE-ko txikiek ibili zinen lanean, baina aurten Eibar B-ra egin duzue jauzia. Zer da hori zuretzat?**

Niretzat erronka pertsonala da Eibar B-n lanean aritzea eta gogo handiarekin hartzen dut. Taldea 3. mailan dabil eta horrek tratatu profesionalagoa edukitzera behartzen nau, bai jokalariak nigan datozenean, bai egunero jarraipenean ere. Niretzat aurrerapausoa da maila profesionaleraino iristea eta kirol arloan espezializatzea gustatuko litzaidake.

**- Gaizka Garitano eta Iban Lopezekin batera egongo zara talde teknikoan. Zer esan dezakezue euren gainean?**

Aitor Iturbe urte askotan egon ostean, Gaizkak eta Ibanek hartuko dute taldea; ueste dut onerako izango dela. Taldeari 'plus' bat emango diote eta errendimendua igoko dela pentsatzen dut. Ibanekin aurretik aritu naiz lanean eta duela urte asko ezagutzen dut. Garitano, bestetik, goimailako foballaria izan da, eta bere esperientzia handia eta foballaren gainean duen ikuspegia emango dio taldeari.

# Eszenatokitik pantailara



*Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO) gurean daukagu, berriz ere, urtero ohikoa den udako egonaldia Hezkuntza Esparruan egiten. Euskadiko hiriburuetan eskainiko dituzten kontzertuak prestatzen dihardute, baina aurten beste eginkizun berezi bat gehiago izango dute: 'La Chanson de Roland' dokumentalaren soinu-banda grabatzea.*

**U**dako 13. denboraldia du aurtengoa EGOK, eta zenbaki honi atxikitzen zaizkion zorte txarreko mitoei uko eginez, saria jaso du orkestrak. Saria dokumental itxuran etorri zaie, 'La Chanson de Roland' dokumentalaren itxurarekin hain zuzen ere. Orreagako gudari buruzko dokumental historikoa da, Olivier Van der Zee herbeherearrak zuzendua eta Wagnerren musikan oinarritua.

Esperientzia aberasgarria izan da EGOKo musikarientzat dokumentalaren soinu-banda grabatzea. Izan ere, Wagnerren musika interpretatzeko aukera izango dute, eta grabazioaren esperientzia talde eta proiektu profesionaletara mugatutako eginkizunak direlako. Beraz, aukera paregabea ireki zaie parez-pare. Honek, gainera, oihartzun handia izango du, bai Euskal Herrian, bai nazioartean. Orkestra eta proiektuari egoera normalean ezinezkoa izango litzatekeen hedadura emanez.

Dokumentalean Wagnerren musika da nagusi, bera da gidaria, eta honen 'Nibelungoen eraztuna' tetralogiako 'Jainkoen gainbehera', 'Sigfrido', 'Walkiria' eta 'Rhin

ibaiko urrea' operetatik hartutako zatiak interpretatuko dituzte EGOKoek. Wagnerrez gain, Donostian bizi den Pascal Gaigne musikagile frantsesak konposatutako beste musika zati batzuekin osatuko da dokumentalaren soinu-banda.



## Hiru kontzertu hiriburuetan

Dokumentala albo batera utzita, urteroko kontzertuak eskainiko dituzte EGOKoek Donostia, Bilbo eta Gasteizen. Uztailaren 19an Kursaallean arituko dira, 20an Euskalduna jauregian eta 21ean Printzipal antzokian (sarreraren prezioa 9 eurotakoa izango da eta Gazte Txartela dutenek %50eko deskontua izango dute). Aurtengoa Errusiako musika protagonismoa izango du emanaldietan. Musika eslaviarra beti egon da presente EGOn, honek eskaintzen duen oparotasun instrumentalarengatik, joritasun harmonikoagatik eta edertasun plastikoagatik.

EGOK, horrela, Tchaikovskyren '4. sinfonia' ospetsua eta '1812 obertura' hartuko dituzte esku artean edo, hobeto esanda, tresna artean. Talde gaztearen indar eta kemen guztia eskatuko duten musika-lan handi eta ederrak dira.

## Eibartar bat tartean

Gutzira 85 kidek osatzen dute EGO (ordezkoak gehiago dira) eta euren artean eibartar bat daukagu: Iñaki Orbegozo. Tronpa-jole eibartarrak urteak daramatza EGOn eta etxean egingo du udako egonaldi hau. Juan José Ocón-en zuzendaritzapean arituko dira musikariak, eta EGOKo lehengo eta oraingo 40 musikariri entzunaldia egingo zaie orkestra profesionaletara lanera joateko beka-programa eskaintzeko.



**San Andres  
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73



**BAMEISA**

Toribio Etxebarria, 4

# GREMIOEN GIDA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12

## ANTENAK

**BALATZ** S.L.  
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

## AROTZAK

**ulmar**  
S.L.



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

Obra gauzatzeko proiektuak  
Obra zibila eta eraikuntza  
Obra osoa, giltza eskura  
Gremioen koordinazioa  
Beherehabilitazioa etxeetan  
Etxeetako errehabilitazioa  
Fatxadetako errehabilitazioa



**ELGETA-KALE** (Punto y Aparte-ren ondoan)  
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799  
Faxa. 943 530 392 [ailaproiektuak@hotmail.com](mailto:ailaproiektuak@hotmail.com)

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50  
Faxa. 943 20 73 60  
[www.trinmer.com](http://www.trinmer.com)



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

Proiektu eta erreformak  
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98  
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

## AROTZAK

**IÑAKI**

Egurrezko mota  
guztietako lanak

Ateak - Tarimak  
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 55 55

## ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD  
**CUADRA EC**  
INSTALAZIO ENERGIKORAK  
TELEKOMUNIKAZIOA  
INDUSTRIA BANTERUA  
ARREBATUAK  
ERREFORMAK

## GARBIKETAK

**escudero**  
INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13  
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94  
[www.escudero.euskalnet.net](http://www.escudero.euskalnet.net)

Aroztegia  Ebanisteria  
 Obra aroztegia



Egiturak, barruko eta kanpoko atekak,  
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,  
eskilarak, miradoreak, moldurak, aholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -  
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA  
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD  
I B A S L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA  
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75  
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

**CRISTALUX**  
Limpieza

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

[cristaluxbe@gmail.com](mailto:cristaluxbe@gmail.com)  
Tfnoa. eta Faxa:  
943 20 65 08  
Mobila:  
659 58 35 32 Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

SUKALDE ALTZARIAK



\*  
AROTZEGIA  
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

**GURIA**

ELEKTRIZITATEA

\* Muntaita eta  
proiektu elektrikoak



Matsaria 2 - 7. pabilioia  
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27  
[www.electricidadguria.com](http://www.electricidadguria.com)

**Limpieza  
Multiservicio  
Eibar**

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171



Barrena, 26 - 6. C

**TREJO**  
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta  
mantenimendua



- Barne apainketak
- Mantenimendu eta automatismoak

**MANTELEC, S.L.**

Ubitxa 7-11

Tfnoa. 943 70 10 44  
Faxa. 943 20 85 48



# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## IGELTSEROAK



**IRAIZABAL**  
CONSEJO REGULADOR, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSEKITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## KLIMATIZAZIOA

klimatizazioa  
energi berriztagarriak  
proiektuak



**santillán**  
klimadenda™

Txaltxa-Zelai, 14  
Tel. 943 03 10 00 Faxa. 943 53 10 18  
info@klimadenda.com [www.klimadenda.com](http://www.klimadenda.com)



- PINTURAK
- ESTUKOAK
- GOTELE
- PAPERETATZE
- LAMINATUAK
- KORTXOA
- MOKETA
- SINTASOLA

**Arregui y Cortes, C.B.**  
Ego-Gain, 3 Tel. 943 20 34 09 Mob. 600 587 335

## ITURGINTZA

**INDA** iturgintza



UR, GAS eta  
KALEFAKZIO  
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxe: 943 12 18 64 (tailerra)  
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
ERREKATXU 3<sup>an</sup>  
eta faxa: 943 20 39 03



Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**Pintura**  
Goi mailako dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO  
Tel. / Faxe: 94 620 03 01  
Mobilak: 607 41 71 81  
666 74 30 98

## SARRAILAGINTZA



**GILTZAK**

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua  
Segurtasun-instalaketak  
Sarrailen egokipenak  
Segurtasun kutxak  
Era guzietako giltzen kopiak  
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

**LARRIALDIETARAKO: 943 701 391**  
(08.00etatik 24.00etara)

**Arragueta, 3** [www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)  
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

## PINTURAK



Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kokakazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etxerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



**PINTURAS**  
**ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 [parrate@terra.es](mailto:parrate@terra.es)  
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

## Argueso eibartarrantzat izan da 40-15 tenis torneoaren azken edizioa


**ELGOIBARKO MINTXETAN JOKATUTAKO TENIS TORNEOAREN FINALEAN**, eibartarrak 6-2 eta 6-4 irabazi zion Markel Aranberri debarrari. Arguesok esperientzia gehiago erakutsi zuen debarrak baino eta, horrela, mendekua hartu zuen aurreko fasean debarrarekin galdu eta gero. 40-15 klubak antolatzen duen txapelketan 50 tenista izan dira parte hartzen (Elgoibar, Eibar, Ermua, mutriku, Deba, Soraluze eta Mallabiako ordezkariekin); hala ere, emakume gutxi izan zen torneoan (hiru bakarrik).

Padel torneoko finaletan, bestalde, bergararren arteko lehia izan zen: Jose Luis Etxaniz eta Patxi Vallejo Jorge Aranes eta Joseba Oregi baino gehiago izan ziren, 7-6 eta 6-1 nagusituz. Azken torneo horretan 25 bikotek hartu zuten parte.



## Souto eta Gañán Eibar KE-ra

**HORIEK IZAN DIRA MANIXEN TALDEAK DATORREN DENBORALDIRAKO** egindako azken fitxaketak. Souto galiziarra Guadalajaratik dator eta goleatzailea da eta Gañán atzelari beterranoa Salamanca-ekin egindako "kromo trukaketaren" ondoren dator, Andres Eibarko atzelaria Gaztela-Leongo taldera joan baita. Bandako jokalariren baten bila dihardute orain taldeko teknikariek, Codina eta Sutilen hutsuneak betetzeko. Bestalde, Juanjo Valencia izango da atezainen prestatzailea eta Juan Carlos Izak Jorge Velosoren postua beteko du emakumezkoen Superligako taldearen entrenatzaile moduan.




## Oporretan ere xakearekin gozatzen

**ABUZTUAREN 21-ETIK 29-RA ITALIAKO FERMO HIRIAN IZANGO DIRA DEPORREKO SEI XAKELARI**, bertan jokatu den nazioarteko torneoan. Jon Arana, Mikel Larreategi, Asier Etxagibel, Edu Olabe eta Haritz eta Julen Garro izango dira gure herriko ordezkariak. Bestalde, Garro anaiak eta Olabe parte hartzen dihardute Benasqueko 30. xake txapelketan, 500 jokalaritik gora batu dituen torneoan. Eibartarrek maila bikaina erakutsi dute eta ELO zerrendan euren aurretik dauden jokalariei irabazi diete. Julen Garro eta Olabe Linaresen izango dira hilaren 26tik aurrera Espainiako 18 urtez azpikoaren txapelketan.

## Arrateko gazteak selekzioarekin

**ANDER IRIARTE ETA JON AZKUE KADETEAK, FERNANDO FERNANDEZ** entrenatzailearekin batera, Sorian egon dira Espainiako Eskubalo Federazioak antolatutako stagean. 40 jokalaritik, 16 izango dira Madrilen hilaren amaieran berriro bilduko direnak, tartean Eibarko biak.



## Gerriko beltzen azterketa

**PEDRO BARBOSAK 1. DAN-A ETA JON MONTIELEK 2. DAN-A ESKURATU ZUTEN** Logroñon zapatuan egindako gerriko beltzen azterketan. Manu Agirre Kalamua klubetik joandako teknikoa epaimahaiko presidente izendatu zuten. Azterketa horretan hainbat lekutatik joandako 30 judoka izan ziren.



## Patxi Usobiaga bigarrena Chamonixen

**ESKALADAKO MUNDUKO TXAPELDUNAK CHAMONIXEN HASI DU DENBORALDIA**, oso maila onean gainera. Ramon Julián beste beterrano batek kendu dio garaipena eta podiumean Jorg Verhoeven herbeherearrak lagundu zien. Patxi Usobiagak ondo dagoela erakutsi du eta sorbaldan izandako operaziotik errekuperatuta.

Chamonixekoa Munduko Koparako sei probetatik lehenengokoa da; jarraian etorriko dira Txinako Xining-ekoa (abuztuak 20), Koreako Chuncheon-ekoa (abuztuak 28), Belgikako Puurs-ekoa (irailak 24), Txinako Huaigikoa (urriak 29) eta Eslobeniako Kranj-ekoa (azaroak 13). Horietatik aparte, eibartarrak beste hiru proba nagusiri egin beharko die aurre: Italiako Arcon jokatu den Arco Rock Master-ari (gaur bertan), Frantziako Briançon-eko Master-ari (uztailak 29) eta Austriako Innsbruck-en jokatu den Europako txapelketari (irailak 14).

## Waterpolo torneoaren IV. edizioa Mutriku

**ZAPATUAN, GOIZEKO 10.00-ETAN HASITA, JOKATUKO DA MUTRIKUKO KAI-IGERILEKUAN** hamar taldeen arteko torneoaren IV. edizioa. Iaz garaile izan zen Gironako Estiurekin batera, 1. nazional mailako Bartzelonako Unibertsitat Autonomak eta Leioa-

ko Askartza, Bilboko Klub Deportiboa, Master Obosolete, Gasteizko Lautada Urpola, Hernani, Tximistarri eta Urbat IKE izango dira, Leioako talde misto-arekin. 12.00etan ordu erdiko geldidunea egingo dute esklerosi anizkoitzaren aldeko ekitaldia egiteko.

Zarautzeko Enbata traineruaren gainean lehiatzen dihardu orain Igor Isasik, baina Eibar, San Juan de Luz, Getxo, Ordizia, eta Euskadi eta Espainiako rugby selekzioan ibilitakoa da eibartarra. Lesio baten ondorioz baloi obala palengatik aldatu du Igorrek eta ACT Ligan onenen aurka dabil orain.

**IGOR ISASI**, arraunlaria:


## “15 kilo galdu ditut arraunean hasi naizenetik”

**- ACT Ligako denboraldia hasi berri duzue. Nola doa?**

Gogo handia geneukan denboraldia hasteko. Behobia-Donostia lasterketa ondoren hasi ginen entrenatzen, beraz, ia urte osoa lanean eman dugu udan hilabete bitan lehian aritzeko. Azken finean nahi duguna lehiatzea da. Trainerilla eta bateletan aritu gara, baina ez da berdina, trainerak dira gehien motibatzen gaituztenak eta denok horri begira entrenatzen dugu.

**- Denboraldi hasiera, hala ere, ez da oso ona ari izaten Zarautzeko Enbatarentzat.**

Nahiko ahul hasi gara, azkenak gaude momentuz, baina guk ahal dugun guztia egiten dugu eta alde horretatik konforme gaude. Gure helburua mailari eustea da hasiera-hasieratik eta hori lortzeko dena emango dugu. Ligako azkena zuzenean jaisten da mailaz eta azken aurrenak play off-a jokatzen du 2. mailako 2. arekin. Gure aurretik Zumaia daukagu puntu batzura eta harrapatzea espero dugu. Ondo ibili garela uste dut, baina etsaiak hobeto. Zortea ere ez dugu lagun eduki, estropadetan zein kaletan aritzeak bere garrantzia duelako, baina tira, ikusiko dugu hemendik aurrera nola doan lehiaketa. Gainera, arraunlari askok laga du taldea aurten eta jende berria sartu gara, esperientzia gutxiagokoa. Hori asko igartzen da.



**- Iaz ARC Ligan aritu zinen Zumaia B taldean. Alde handia dago ARC Liga eta ACT Ligaren artean?**

Bai, guztiz. Iaz antzeko arraunlariak genbiltzan, hau da, urte gutxi geramatzagunak, jubenilak eta abar. Ez zegoen alde asko maila aldetik. Aurrean zebiltzan taldeek alde asko ateratzen ziguten, baina ACT Ligako maila oso altua da, sekulakoa, arraunean gaur egun da goen maila altuena.

**- Nolakoak izaten dira entrenamenduak arraunean?**

Astean sei egunetan egiten dugu lan eta batean atsedena hartzen dugu. Astean zehar barruan aritzen gara eta asteburuetan uretara goaz, goizeko 09.00etan! Negu partean gimnasio gehiago egiten dugu, ergonometroan ordu asko eta asteburuetan uretara.

**- Arraunean hasi baino lehen rugbya laga zenuen. Zergatik?**



Plakaje batean goiko orbita eta maxilarra apurtu nituen eta lagatzea pentsatu nuen. Nahikoa zela uste nuen eta amak ere esan zidan ez banuen lagatzen etxean sartzen ez zidala lagako (barreak).

**- Rugbitik arraunera...**

Aukerak baztertzeko joan nintzen: foballean baldarra naiz, eskubaloi eta saskibaloian ez dut segundu bat baino gehiago irauango... arrauna gustatzen zitzaidan, telebistan ikustea, inoiz ez bainuen egin. IVEF ikasi nuen eta arraunlaritza munduan dabilen hango irakasle bati komentatu nion arraunean hasteko intentziora neukala. Orduan, berehala esan zidan: “Tira, jo Zarautzera!”. Probatu nuen eta horrela orain arte. Rugbya lagatzean lehiatzen jarraitu nahi nuen, txikitatik ibili bainaiz horrela eta gazte sentitzen naiz oraindik.

**- Nola moldatzen zara uretan?**

Telebistan ikusita ez du ematen zaila denik, pentsatzen duzu indar kontua dela, gogor ematea, baina oso kirol tekniko da, batez ere itsasoan, errekan ez

hainbeste. Gainera, arraunketa forma ezberdinak daude, niretzat denak dira berriak, baina tira, ikasten noa lehiatzen dudana bitartean. Topera hasten duzu eta 20 minututan topera egin behar duzu arraunean. Hilda amaitzen duzu. Pentsa, 36-37 palada ematen ditugu minutuko 20 minututan zehar.

**- Zein kirol da sakrifikatua: rugbia edo...**

Arrauna (zalantza gabe). Askotan esan dut, “puto remo de los cojones” (barreak). Beste arraunlariek barre egiten dute eta rugbitik datorrenari txantxak egiten dizkiote (barreak). Rugbian asko entrenatzen genuen, baina ezberdin, astean lau alditan gehienez. Hemengoak ia familiakoak dira niretzat eta egur asko ematen digute. 15kg galdu ditut arraunean hasi naizenetik, pentsa! Jendeak ea gaixorik nagoen galdetzen dit. Lehen baino gehiago jaten dut-eta! Oso sakrifikatua da, denbora asko kentzen dizulako, justu jendeak oporrak dituenean... Baina gus-tora nabil egia esan.



## Arrateko bertso afarirako txartelak

**URTEROKO MARTXARI JARRAITUTA, OPORRETATIK BUELTAN, ARRATEKO JAIEN INGURUAN, BEZPERARAKO BERTSO AFARIA** antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Irailaren 7an jardungo duten bertsolariak Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Julio Soto dira, laurak ere goi mailakoak. Afarirako sarrerak astelehenean, uztailaren 19an ipiniko dituzte salgai ...eta kitto! Euskara Elkartearen bulegoan (Urki-zu, 11 solairuartera), bakarrik elkarteko bazkideentzat. Bazkide

bakoitzak gehienez sarrera bi erosteko aukera izango du eta ahal dela, salmenta arintzeko, bazkide txartela erakusteko moduan eramateko eskatu dute antolatzaileek. Bazkideendako salmenta berezi hori hilaren 28ra arte egongo da martxan eta txartel bakoitza 27 eurotan eskuratzeko aukera izango dute bazkideek. Uztailaren 29tik aurrera, berriz, sarrerak erosteko Kultu, Sagarbitza edo Kantabriara joan beharko da eta bazkide ez direnek zein bazkideek 28 euro ordaindu beharko dituzte txartel bakoitzeko.



## Zeramika eta Dibujorako matrikulazioa

**DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLAKO TALDE BATZUETAN ORAINDIK TOKI BATZUK LIBRE DAUDENEZ,** matrikulaziorako epea luzatzea erabaki dute. Dibujo Eskolan izena eman nahi dutenek irailaren 10era arte izango dute horretarako aukera eta Zeramika Eskolarako matrikula bete nahi duenak, berriz, irailaren 15era

arte izango du izena emateko aukera. Kasu bietan Pegorara joan beharko dute (gogoan izan irailaren 15era arte udako ordutegia dagoela indarrean eta, beraz, astelehenetik barixakura 09.00etatik 13.30etara egongo dela zabalik bulegoa). Matrikularako inprimakia [www.eibar.net](http://www.eibar.net) Udalaren webgunetik jaisteko aukera dago.


## Lambretta eta San Kristobal eskutik helduta

**GIRO PAREGABEAN EMAN ZUTEN AURREKO ASTEBURUA BAI LAMBRETTA MOTORREN VII. KONTZENTRIZIOAN** parte hartu zutenek, baita San Kristobal auzoko jaietara gerturatu ziren guztiek. Berriz ere, ospakizun biek ekitaldi batean baino gehiagotan bat egin zuten eta, antolakuntzarako elkarlan horri esker, barixaku gaueko kontzertua arrakastatsua izan zen beste behin: aurten La Guardia taldea izan zen auzoko oholtzaren gainean. Bestalde,

San Kristobal auzoko jai batzordeak egindako zozketan 2.156 zerbakiarentzat izan da saria (irabazleak aukeratutako Paradore Nazionalean asteburua). Irabazlerik agertzen ez bada, erretserbako 2.834 zerbakiak jasoko du saria eta, bestela, 2.906 zerbakiak. Lambretta klubekoek, berriz, Arrateko Krabelin hotelean lagun birendako afaria eta ostatua zozketatu zuten eta saria 349 zerbakiari dagokio (erretserbako zerbakiak 101 eta 139 dira).



Motorren erakusketak jende asko batu zuen, urteroko moduan. / **MAIALEN BELAUSTEGI**



## Lip-dub lehiaketaren azken egunak

**ASTELEHENEAN, HILAREN 19-AN AMAITUKO DA I. EUSKAL LIP-DUB LEHIAKETARA AURKEZTEKO EPEA.** Udalak eta Eibar.org elkarteak Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin elkarlanean antolatutako lehiaketan parte hartu nahi duenak, beraz, asteburua aprobetxatu dezake musikazko ikusentzuzko grabatu eta eibar.org/lipdub webgunean izena

eman eta bideoklipa entregatzeko. Antolatzaileek Youtube-ra igo dituzte orain arte aurkeztutako lanak eta bertan boto gehien eskuratzen duten 3 taldeak izango dira finalista. Finalisten izenak irailaren 27an emango dituzte ezagutzera. Lehiaketaren irabazlea, berriz, Coliseoan urriaren 2an aukeratu da, horretarako antolatuta dute ekitaldi berezian.



## Elgoibarko Txistulariak Usartzarekin

**DOMEKAN, HILAREN 18-AN, ELGOIBARKO TXISTULARI BANDA KOAK BISITAN IZANGO DITUGU**, Usartza Txistulari Bandaren 75. urteurrenaren ospakizunen barruan, eibartarrekin batera kalejiran jarduteko. 11.00etan hasiko den emanaldi bereziarekin, Usartzako Txistulariak omentzeaz gain, musikari elgoibartarrei erreko-nozimendua adierazi nahi zaie, *“Eibarko txistularientzat izan duten garrantzia gogora ekarri eta eskainitako laguntza eskertzeko ahaleginetan”*. Elgoibarko txistulari guztiak gogoan dituzten arren, domekako ekitaldian modu berezian gogoratuko dute Florencio Ansola *“Txanbolin”* zena. Izan ere, *“Txanbolin”* eta haren familian



Florencio Ansola *“Txanbolin”* bereziki izango dute gogoan. / KOLDO MITXELENA

txistuarekiko izan duten lotura ez da txikia izan: 1850ean Roke Ansolarekin jaio zen dinastiak bizitza luzea izan zuen, 1975era artekoa hain zuzen. Urte horretan Florencio Ansola hil eta haren semeek txistua al-

bo batera laga zuten, baina urte horietan guztietan Ansolatarekin izandako garrantzia handia izan zen, berriki 125 urte bete dituen Elgoibarko Musika Bandari eskainitako liburuan jasota geratu den moduan.

## Danbaka lehiaketa martxan

**EGUAZTENEAN AURKEZTU ZUTEN GOIENAK ANTOLATZEN DUEN DANBAKA MUSIKA LEHIAKETAREN LAUGARREN EDIZIOA** Arrate Kultur Elkartearen. Iazko bideari jarraituta, Debagoiena, Debabarrena eta Durangaldeko musika taldeek parte hartzeko aukera izango dute eta izena emateko epea irailaren 17ra artekoa izango da. Aurreko edizioetan parte hartu zuten taldeek berriz parte hartzeko aukera izango dute, beti ere finalera ailegatu ez baziren. Interesa dutenek hiru abesti original aurkeztu beharko dituzte, CD edo mp3an; horrekin batera talde edo bakarlariaren argazkiak, biografia txiki bat, harremanetarako helbidea, telefonoa eta e-posta eman beharko dituzte danbaka@danbaka.com helbidean edo, posta arrunta erabilita, Goiena Komunikazio Zerbitzuak helbidera idatzita (132 postakutxa, 20.500 Arrasate).

Antolatzaileek izena ematen duten taldeen artean 19 hautatuko dituzte eta hogeigarrena ikusleek aukeratuko dute, danbakako webgunean



(www.danbaka.com) talde guztiak ezagutzeko aukera izango baita. Lehiaketa urriaren 22an hasiko da, azaroaren 5, 19 eta 26an, abenduaren 14an jarraitzeko eta finala urtarrilaren 14an jokatuko da. Kontzertu guztiak Elgetako Espaloia Antzokian izango dira, 22.30etan.

## laburrak

### PELIKULA GAZTETXEAN

Eguaztenean, hilaren 21ean *“Bajarse al moro”* pelikula emango dute Tallarra gaztetxean, 22.15etatik aurrera.

### HIZKUNTZA ESKOLA

Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialean izena emateko epea uztailaren 20ra artekoa izango da eta internet bidez matrikula betetzeko aukera dago. Eibarko Eskolak alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa ikasteko eskaintza dauka. Informazio gehiagorako [www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net) helbidera jo daiteke.

### PEDRUCHO-REN IRTEERA


Uztailaren 25erako Santanderrera egun osoko irteera antolatu du Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkarteak: hiria bisitatzearrekin batera, 18.30etan bertan egingo den zezenketara joango dira zezenzaleak. *“Morante de la Puebla”*, Francisco Marco eta Cayetano-k *El Tajo y La Reina* abeltegiko zezenekin jardungo dute. Joan nahi duenak uztailaren 21erako, 19.00etarako erosi beharko du txartela Arkupe, Leo edo Zubi-Gain tabernan (75 euro bazkideek, 85 euro bazkide ez direnek).

## Luis Mari Gorosabel Aristegi-ren

heriotzaren 9. URTEURRENA


**EZ AGURRIK,**  
GURE BIZITZAN ZAUDE BETIRAKO.

MAITE ZAITUGU. *Etxekoak* Eibar  
2010eko uztailaren 31



*'Fernando Beorlegi: Gogoaren pintzelkada garratzak' erakusketa dago ikusgai Zarautzeko Sanz Enean irailaren 12ra arte. Bertan, Beorlegiren margoak egongo dira ikusgai, eta erakusketa Eibar eta Lizarrara pasako da ondoren (irailean dator gurera). Mikel Beorlegi bere semea ekimenaren antolaketan ibili da.*

## MIKEL BEORLEGI:



# “Aitaren izena eta ekarpenak berriro zabaltzea bilatzen nuen”

**- Zarautzen 'Fernando Beorlegi: Gogoaren pintzelkada garratzak' erakusketa jarri da martxan, gero Eibar eta Lizarratik pasako dena. Nolako da erakusketa?**

Erakusketan berrogei margolan, eskulturaxo bat eta hainbat dokumentu grafiko ikus daitezke. Bertan, bisitaria mezuz beteriko irudien aurrean jar daiteke eta, horrela, aitaren margolanen bilakaera artistikoaren zantzuak antzeman ditzake, hau da, hamarkada desberdinetan erabili zituen lengoai piktoriko desberdinetan oinarritutakoak, hala nola, kostumbrismoan, kubismoan, errealismo kritikoa, errealismo majikoan, eta abar.

**- Nola definituko zenuke zure aita artista moduan?**

Aita, guretzat aita zen lehenengo, beste gauzen aurrean; gero, hamalau urtetik aurrera hasi nintzen konturatzen bere indar sortzaileak ez zituela inguruko artisten ildoak ja-

rraitzen. Langile sutsua eta ikerlea zelarik, ideia bat buruan zuenean prozesu bati hasiera ematen zion, kuadernoetan zirriborroak betetzen, colageak prestatzen, argizarizko irudiak gauzatuz eta azkenean, proba batzuk margotzen zituen behin betiko koadroa hasi aurretik. Sortzaile disziplinatua zen eta ordu asko ematen zituen bere estudioan, etxean edo, karpetatxoa eta arkatzak ateratzeko aukera aurkitzen zuen guztietan. Berataz eman dira hainbeste definizio: Denboraren margolaria, Bere garaiko kronista kritikoa... Berak bere buruari buruz esaten zuen, bere burua koadroen pertsonaien sudurretan ziztaten zuen insektu baten antzekoa zela.

**- Kritiko garratza zen bere margolanetan?**

Hala uste dugu kasu askotan. Batez ere hirurogeigarren hamarkadatik laurogeita hamargarrena bitartean pintatu zituen lanetan. Geroxeago, bere kuadroak ikonografikoki apaldu egin ziren, baina esanahiak eta keinuak bertan jarraitzen zuten. Horrela, bere lanetan argi agertzen dira hainbat mezu, besteak beste, pobrezia duintasuna, bazterkeria, etorkinen arazoak, hirigintza basatia, agintarien handikeria, bortizkeriaren salaketa... hau da, egungo gizakia eta gizartearen akatsak, kimerak eta faltsuakeriak agerian utzi nahi zizkigun bere arte lanetan. Edonola ere, berak nahiago zuen margotzea eta azalpenak, azken baitan, ikusle bakoitzaren subjektibotasunaren baitan sortuko ziren.

**- Eibarko erakusketak nolako berezitasunak izango ditu?**

Lehen aipatu dudan bezala, Eibarko erakusketara askoz ere lan eta informazio




gehiago eramango dugu. Hiru erakusketen artean aberatsena izango da. Bertan ikusgai izango dira hirurogei ta hamar kuadro, grabatu batzuk (ez asko), eskultura batzuk ere, margotzeko eta grabatzeko tresnak eta prozesuetako elementuak, dokumentazioa eta proiektioarekin batera. Eibarko Portalean ateara zabalduko ditu irailaren 17an urriaren 12 arte. Erakusketak Portaleako erakusketarako duen esparru osoa beteko du.

**- Zer suposatuko du zuretzat erakusketa hau antolatzeak?**

Aitaren izena eta ekarpenak berriro zabaltzea bilatzen nuen, ahalik eta duintasun gehienez. Bizirik zegoenean merezita bazuen ere, bere lana bere bizitzaren emaitzat harturik, ezin genuen utzi ahaztutako iluntasunean. Pertsonalki oso hunkigarria izan da jasotzea aitaren inguruko iritziak eta testigantzak eta aspalditik zuzenean ikusi gabeko koadro hauen aurrean berriro egoteak, aspaldiko lagunak topatzearen antzeko zirraraz sortarazi dit, barren-barrenean.

**ELKARRIZKETA OSOA**  
WWW.ETAKITTO.COM webgunean



## udako ordutegiak

### - PORTALEA

Astelehenetik barixakura. Uztailean eta abuztuan: 09.00-13.30.

### - PORTALEA

Astelehenetik barixakura. Uztailean: 09.00-21.00. **Abuztuan: 09.00-14.00.**

### - Juan San Martin LIBURUTEGIA

Astelehenetik barixakura. Uztailean: 09.00-13.30 / 16.30-19.30.

Abuztuan: 09.00-13.30 (**abuztuaren 9tik 20ra itxita**).

### - Armagintzaren MUSEOA

Martitzenetik barixakura. Uztailean: 16.00-20.00. **Abuztuan: 10.00-13.30.**

### - Kz gunea

Uztailean: 09.00-13.00 / 16.00-20.00. **Abuztuan itxita.**

### - Ipurua KIROLDEGIA

Astelehenetik barixakura: 07.30-22.00 (barruko igerilekua: 07.30-21.30)

Zapatuetan: 09.00-13.00 / 16.00-20.00.

Domeka eta jai-egunetan: 09.00-13.00.

**Abuztuan barruko igerilekua itxita.**

**Abuztuaren 10etik 23ra kiroldegia itxita.**

### - KANPOKO IGERILEKUA

Irailaren 20ra arte: egunero 10.30-20.00.

### - UNBE

Astelehenetik barixakura: 10.00-22.00.

Zapatuetan: 09.00-22.00.

Domeka eta jai-egunetan: 09.00-21.00.

**Abuztuaren 3tik 9ra itxita.**

### - ORBEA kiroldegia

Astelehenetik barixakura: 07.30-21.30.

Zapatuetan: 09.00-14.00 eta 17.00-20.00.

Domeka eta jai-egunetan: 09.00-14.00.

**Abuztuan, astelehenetik zapatuta: 08.00-15.00.**



## San Salvador jaiak

### - Abuztuak 7

20.00.- Kanpai-errepika eta txupinazoa.

### - Abuztuak 8

08.00.- Kanpai-errepika eta txupinazoa.

11.00.- Meza, trikitilariekin.

11.30.- Piskolabisa.

13.00.- Herri bazkaria.

17.00.- Herri kirolak: aizkolariak, harrijasotzaileak, idi-probak.

20.00.- Erromeria, trikitilariekin.

## Andra Mari jaiak (Azitain)

### - Abuztuak 14

19.00.- Kanpai-errepika.

19.30.- Meza eta Salbea Andra Mariari, parrokian.

### - Abuztuak 15

10.30.- Kanpai-errepika eta txapligu jaurtiketa.

11.00.- Herri meza parrokian

11.45.- Umeentzako jolasak.

12.00.- Dantza txapelketa.

12.45.- Norgehiagoka: 8 gizon idi baten kontra, Arrateko proba-harriarekin (750 kilo)

14:00.- Jaialdiaren amaiera.

## U D A K O Z I N E A : U n t z a g a n 2 2 . 3 0 e t a n

uztailak 29

abuztuak 3

abuztuak 5

abuztuak 10

### "UP"

Zuzendaria: **Pete Docter**  
Aktoreak: **Ed Asner, Jordan Nagai, Bob Peterson, Christopher Plummer...**



Carl Fredricksen, 78 urteko puxika saltzailea, bere bizitzako ametsa egi bihurtu eta, etxeari lotuta, Hegoafrikako lurretarantz irtengo da hegan. Russel 8 urteko gidari super baikorra bere amesgaiztorik handiena bilakatuko da. Irupidenezko abentura.

### "Mal día para pescar"

Zuzendaria: **Alvaro Brener**  
Aktoreak: **Gary Piquer, Jouko Ahola, Antonella Costa, Cesar Troncoso...**



Orsini manager maltzurak eta bere ordezkaria, Jacob van Oppen, borroka askeko munduko txapelduen ohiak, Hegoamerikako herri galduetan zehar bidaiatzen dihardute. Negozio hori arriskuan jarriko du Adrianaren eta bere mutilaren agerpenak.

### "Los sustitutos"

Zuzendaria: **Jonath. Mostow**  
Aktoreak: **Bruce Willis, Rosamund Pike, Radha Mitchell, Ving Rhames...**



Mundu ideal batean bizi diren artean, urteetako lehen hilketa emango da; FBIko Green agenteak ordeztuak roboten fenomenoaren atzean dagoen azpijokoa aurkituko du. Berea lagatzera derrigortuta, bizia arriskuan jarriko du misterioa konpontzeko.

### "En tierra hostil"

Zuzendaria: **Kathr. Bigelow**  
Aktoreak: **Jeremy Renner, Anthony Mackie, Ralph Fiennes, Guy Pearce...**



James sarjentuaren iritsierak hankaz gora jarriko du bere agindupean duen bonben indargabetzeaz arduratzen den taldea. Menpeko bi ofizialak bere lan egiteko era burugabea jarraitzen ikasi behar dute, hirian bertan gertatzen den joko hilkoraren erdian.

## horoskopoa

### ARIES

Udako oporrak zain dituzu. Hasiera batean nahiko kaxkar ibiliko zara, baina uda ahal bezain ondoen aprobetxatuko duzu ondoren.

### TAURUS

Atsedenerako gogo handia duzu, baina lan gehiago egin beharko duzu. Lasai, ondorengo atsedena zapore gozoagoa izango du horrela.

### GEMINI

Psikologikoki asko eskertuko duzu oporretan joatea. Nahiko 'erreta' egongo zara eta horrela burua argituko duzu. Gozatu!

### CANCER

Hondartzak, mendiak, hiriak... gauza askotaz gozatu ahal izango duzu hurrengo asteotan. Momentu ahaztezinak biziko dituzu.

### LEO

Erabakiak hartzeko momentua izango da, hala ere, gutxienez denbora izango duzu ondo pentsatzeko eta erabaki zentzudunena hartzeko.

### VIRGO

Kontuz eguzkiarekin. Krema ondo eman bestela erretzeko arriskua daukazu eta badakizu horrek izan ditzakeen ondorioak.

### LIBRA

Jende asko ezagutuko duzu datozen asteotan eta proiektu berriak sortuko zaizkizu. Zure esku egongo da horietako batzuk gauzatzea.

### SCORPIUS

Bizitza momentu batetik bestera aldatu daiteke, eta antzerako zerbait gertatuko zaizu zuri. Aldaketa, gainera, sakona izan daiteke.

### SAGITTARIUS

Inoiz bizi izan duzun udarik zirraragarriena biziko duzu, ezagutu ez duzun lekuetan ibilita. Ondo zabaldu begiak eta aprobetxatu!

### CAPRICORNIUS

Pilak ederki kargatuko dituzu oporraldian. Nahi dituzun gauzak egingo dituzu eta ezusteko bat edo beste ere izango duzu, onak denak.

### AQUARIUS


Trankil egon, hainbat astetan ez duzu ...eta kitto!-ren horoskopoa irakurri ahal izango, baina gauzak ondo joango zaizkizu udan.

### PISCIS

Udako oporrak modu ezin hobean hasiko dituzu, baina are hobea gozatuko dira zuretzat. Ditzuzun desio guztiak beteko dira.

## laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, MALEN Arriola Esteibar, hillaen 22xan bost urte beteko dozu-eta. Muxu bat amatxo, aitaxo eta Ane ahiztiaren partez.




Zorionak, UXUE gure printzesa, hillaen 20xan bost urte egingo dozu-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAIALEN Agirregomezkorta Diéguez, hillaen 29xan rte bi beteko dozu-eta. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, pareja, astelehenian eta martitzenian urtiak bete zennituzten-eta. Ondo-ondo pasau, famelixa guztiaren partez. Hurrenguan juango gara barru piraguan ibiltzera.




Zorionak, ZOIHARTZE, atzo urte bi egin zenduaz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, LORE Arregi Cabezón, hillaen 22xan bost urte beteko dozu-eta. Famelixaren partez.




Ongi etorri, KAI! Patxo haundi bat hiruroi Eibarko famelixaren partez.




Zorionak, SUSANA, hillaen 23an urtian egingo dozu-eta. Kuadrillakuen eta lagunaren partez.



Zorionak, KARMELE, hillaen 11n zortzi urte egin zenduaz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, CONCHI Fernández, zure urtebetetzian. Zure mutillaren partez.



Zorionak, NAROA eta LOREA, atzo zazpi urte bete zennituztelako. Famelixaren partez.



Zorionak, KOLDO Sendino Suárez, atzo urtebete egin zenuan-eta. Aitxita-amama, lehengusu eta famelixaren partez.

## JAIOTAKOAK

- Jon Egia Redondo. 2010-VII-3.
- Mikel Lartain Pérez. 2010-VII-7.
- Aya Nait Charif. 2010-VII-7.
- Lier Teresa Martínez. 2010-VII-7.
- Leire Rodríguez Abud. 2010-VII-8.
- Nagore Pérez Vila. 2010-VII-8.

## HILDAKOAK

- Maritxu Zubizarreta Epelde. 85 urte. 2010-VII-9.
- M<sup>a</sup> Angeles Mancebo De la Gala. 71 urte. 2010-VII-10.
- Jose Manuel Expósito Basurto. 54 urte. 2010-VII-10.
- Isaias Bratos Santiago. 89 urte. 2010-VII-11.
- Fernando Larrañaga Arriola. 83 urte. 2010-VII-11.
- Cecilio Elorza Juaristi. 84 urte. 2010-VII-11.
- Jose Luis Kortaberria Retolaza. 70 urte. 2010-VII-12.
- Mercedes Etxeberria Arregi. 78 urte. 2010-VII-12.
- Carmen Ortíz de Zarate. 89 urte. 2010-VII-13.

## SUDOKUA

		3		4		6		
	6						1	
9		5	1			8		7
			4		7	1		
7								9
		4	6		8			
3		8			4	9		1
	5							2
		9		8		4		

## DENBORAPASAK

2	8	5	4	7	6	1	3	9
3	1	6	9	2	5	4	8	7
7	4	9	1	3	8	2	6	5
0	3	7	2	6	1	9	5	4
6	9	1	7	5	4	8	2	3
5	2	4	8	9	3	7	1	6
4	7	3	5	6	2	6	9	1
1	5	8	6	4	9	3	7	2
0	6	2	3	1	7	5	4	0

AURREKOAREN EMAITZA



**16, barixakua**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

**17, zapatua**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

**18, domeka**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

**19, astelehena**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

**20, martitzena**  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

**21, eguaztana**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

**22, eguena**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)

**23, barixakua**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

**24, zapatua**  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

**25, domeka**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

**26, astelehena**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

**27, martitzena**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)

**28, eguaztana**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

**29, eguena**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

**30, barixakua**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

**31, zapatua**  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

**ABUZZTUA**

**1, domeka**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

**2, astelehena**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

**3, martitzena**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

**4, eguaztana**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

**5, eguena**  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

**6, barixakua**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

**7, zapatua**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

**8, domeka**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

**9, astelehena**  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

**10, martitzena**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

**11, eguaztana**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

**12, eguena**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

**13, barixakua**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

**14, zapatua**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

**15, domeka**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

**16, astelehena**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

**17, martitzena**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

**18, eguaztana**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

**19, eguena**  
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)

**20, barixakua**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

**21, zapatua**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

**22, domeka**  
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

**23, astelehena**  
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

**24, martitzena**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

**25, eguaztana**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

**26, eguena**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

**27, barixakua**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

**28, zapatua**  
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

**29, domeka**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

**30, astelehena**  
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)

**31, martitzena**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

**IRAILA**

**1, eguaztana**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

**2, eguena**  
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

**3, barixakua**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

**telefono jakingarriak**

SOS delak .....112  
Pegora .....010  
Udaletxea .....943 70 84 00  
Portalea .....943 70 84 39  
Udaltzaingoa.....943 20 15 25  
Mankomunitatea943 70 07 99  
Debegesa.....943 82 01 10  
KIUB .....943 20 38 43  
Epaitegia .....943 03 34 00  
Iberdrola .....901 20 20 20  
Naturgas .....902 12 34 56  
DYA Larrialdiak.943 46 46 22  
Gurutze Gorria..943 22 22 22  
Mendaro osp.....943 03 28 00  
Anbulategia.....943 03 25 00  
Torrekua .....943 03 26 50  
Errepideak.....902 11 20 88  
Ertzaintza .....943 53 17 00  
Eusko Tren .....902 54 32 10  
Pesa .....902 10 12 10  
Taxiak.....943 20 30 71  
.....943 20 13 25  
Alkohol.Anon. ..629 14 18 74  
Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

**tren ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Mendaron. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira. 150.000 euro, negoziagarriak. Tel. 943-700690.  
– Armagin kalean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Kalefakzioa. Sartzeko moduan. Tel. 675-700864.

### 1.2. Errentan

– Pisua alokagai abuzturako Deban. Handia, leku onean eta merkea. Tel. 943-701394.  
– Calpen (Alacant) apartamentua alokagai ekaina eta uztaileko. Hondartzaren 1. lerroan. Igerilekua eta garajea. Tel. 943-171107.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Scooter 125 motorra salgai. 3 urte. 6.700 km. Tel. 630-810099 edo 617-099029.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Jubilazioa dela-eta, jatetxea tras-pasatzen da Eibarko erdigunean. Aukerako prezioan. Tel. 943-207019.  
– Txabola salgai, terrenoarekin. Azitaingo poligono industrialean. Berritzeko. Tel. 618-875007.  
– Lokala salgai Urkizu aldean. 90 m<sup>2</sup>. Prezio ezin hobea. Deitu 17.00etatik aurrera. Tel. 606-773886.

### 3.2. Errentan

– Lokala alokagai Elgoibarren, eros-teko aukerarekin. 125 m<sup>2</sup>. Lehen taberna izandakoa, soziedade bat egiteko edo biltegi moduan erabiltzeko egokia. Deitu 19.00etatik 22.00etara. Tel. 649-446716.  
– Garajea alokairuan Urkizun. Mar-radun partzela. Tel. 609-453946.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 678-972690.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka zein interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 636-172765.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka zein interna. Esperientzia. Tel. 680-674323.  
– Emakumea eskaintzen da, ingelasa eta italiara ezagutzeekin, harreran zein farmazia laguntzaile moduan jarduteko. Tel. 943-031441 edo 618-350922.  
– Mutila eskaintzen da elektrizista, igeltsero edo sukaldari-laguntzaile moduan jarduteko. Tel. 646-260220 edo 943-031441.  
– Mutila eskaintzen da baserri lanetan jarduteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 686-077316.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-821678.  
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako. 15.30etatik 18.30etara. Tel. 647-044031. Marian.  
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 663-786976  
– Titulodun emakumea eskaintzen da nagusiak edo menpekotasunak dituztenak zaintzeko. Tel. 619-859032.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 691-060164.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 646-180072.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 669-230164.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 686-614201.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 671-854136.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-641609.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 629-994385.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 669-966611.  
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 625-992721.  
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-344377.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldean laguntzeko eta garbiketarako. Tel. 690-156040.  
– Emakumea eskaintzen da erizain-laguntzaile moduan. 20 urteko esperientzia. Uztailean eta abuztuan familiarekin; bestela, interna moduan. Tel. 610-936839.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak ikastolara eramateko. Tel. 615-755991.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-435056.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 636-274458.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 656-493864.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-147559.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Oporretan ere bai. Tel. 686-802342.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Oporretan ere bai. Tel. 675-421933.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Oporretan ere bai. Tel. 650-152866.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 628-740765.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 669-742789.  
– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 690-359554.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 618-050902.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 685-765340.  
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 646-358709.

### 4.2. Langile bila

– Ilepaindegirako 1. mailako ofiziala behar da. Esperientziarekin. Tel. 943-530000.  
– Kamarera/o behar da Maixa tabernan. Jornada erdiz. Tel. 605-908924.  
– Kamarera/o behar da asteburuetarako Aldatz tabernan. Tel. 943-206143.  
– Kamareroa behar da terrazarako. Tel. 943-701207.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Errefortzu klaseak emango nituzke uztailean: Matematikak, Fisika, Kimika... Tel. 620-197174.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Ilepaindegiko gailu eta produktuak salgai, jubilazioa dela-eta. Sekadorak, silloiak, plantzak... Tel. 943-207630. M<sup>o</sup> Carmen.

### 4.2. Eman

– Txintxilla kume bi oparitzen ditut, kaiola eta guzti. Tel. 605-772606.

# EIBARKO AZOKAREN Zozketa

# UZTAILAK

# 15-29

## HILEROKO ZOZKETA

25 €-ko 24 erosketa txartel  
200 €-ko erosketa txartel bat



## ARRATEKO BERTSO AFARIA

**Bertsolariak:**  
Andoni Egaña  
Sebastian Lizaso  
Maialen Lujanbio  
Julio Soto

**Gai-jartzailea:**  
Asier Ibaibarriaga

Kantabria  
jatetxean  
irailaren 7an  
martitzena  
21.00etan


# ~~WANTED~~

ANDONI



EGANA

SEBASTIAN



LIZASO

ez bilatu  
gehiago

JULIO



SOTO

MAIALEN



LUJANBIO

## IRAILAREN 7-AN KANTABRIAN

## SARRERAK

Aurre-salmenta  
bazkideentzat:  
uztailaren 19tik

28ra arte  
(27 €)

...eta kitto!-n

(bazkide bakoitzeko  
sarrera bi gehienez)

Uztailaren 29tik  
aurrera

(28 €)

Sagarbitzan  
Kultun  
Kantabrian



## TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**Estaziño kalea, 8**  
**Tel. 943 70 23 78**

**BERRIA**

**T. Etxebarria, 7**  
**Tel. 943 70 23 84**



**Irribarreak**  
gaztetu egiten gaitu

**m** **bista eder**  
clínica dental - hartz klinika

**Inplante eta**  
**Hortz-Estetikan**  
adituak

Bista Eder Hartz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75